



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 22a

118. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (4. or.).
- Galdera, inbertsio bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzaren kostu ekonomikoari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Urdazubiko guardia medikoei eta Elizondoko Oinarritzko Osasun Eskualdeko plantillari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (5. or.).
- Galdera, doako laguntza juridikoaren erregelamendu berriaren eta haren konpentsazio ekonomikoko oinarri berrien inpaktu ekonomikoari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Mendillorriko BHIn nahiz Berako Toki Ona institutuan antolatutako “Herri Eskolak” izenekoei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, VI. Inkesta Soziolinguistikoa herriarrek euskararekiko duten jarreraz egindako galderari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunearen izena aldatzearen kostuari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- Galdera, *Telleria eta gero, zer?* liburua nahitaez irakurri beharri buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, umetokiaren lepoko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa oportunistan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- Galdera, bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).

- Galdera, koloneko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- Galdera, 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean hainbat arrazoiren arabera izandako hilkor-tasun-tasei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, 2005etik 2020ra bitartean Nafarroako administrazio publikoetan izandako langileei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (11. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- COVID-19aren aurkako Nafarroako Parlamentuaren Prebentzioko Kontingentzia Plana, Legebiltzarreko Mahaiaren 2021eko urriaren 18ko erabakiaren bidez onetsia (12. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzeko arauak (16. or.)

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Aurrekontuek berebiziko garrantzia dute edozein gobernurentzat, gobernuek beren programa politikoak gauzatzeko duten tresna nagusia diren aldetik.

Are gehiago gutxiengoa izanda gobernatzen duten alderdien kasuan —legegintzaldi honetan, kasu—, halako moduan non akordioak bilatu behar baitituzte, eta horrek, jakina, baldintzatu egingen ditu aurrekontu-politika, programa politikoak, zerbitzu publikoak nahiz herritarren ongizatea.

Horregatik guztiagatik, bere aurrekontu-politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

F saila:
GALDERAK

Galdera, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa.*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zenbat mediku eta zenbat erizain sartu zituen alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura?

Profesional horietako zenbat sartu zituen kontratu bidez?

Mediku edo erizainik sartu al zen beste baliabide edo zentro batetik horra mugituta? Zenbat eta nondik?

Iruñean, 2021eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, inbertsio bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzearren kostu ekonomikoari buruzkoa.*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, inbertsio bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzearren kostu ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuarentzat zenbateko kostua du inbertsio bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzeko, kontuan hartuta giza baliabide osagarriak ez ezik aukera-kostuak eta abar ere?

- Kostu horiek modu berezitu edo berariazkoan kontabilizatzen al dira?

Iruñean, 2021eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Urdazubiko guardia medikoei eta Elizondoko Oinarrizko Osasun Eskualdeko plantillari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Urdazubiko guardia medikoei eta Elizondoko Oinarrizko Osasun Eskualdeko plantillari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1.- Osasun Departamentuak zergatik ez zuen bete Urdazubiko Arreta Bereziko Puntuko guardia medikoa?

2.- Zer egunetan ez zen bete Urdazubin guardia medikoa?

3.- Osasun Departamentuak zer neurri hartu du Urdazubiko guardia medikoak betetzeko? Zer egunetan bete dira zehatz-mehatz?

4.- Nondik zetozen Urdazubin zerbitzu hori ematera heldutako profesionalak? nola bete dira horiek hutsik utzitako lanpostuak?

5.- Zertan da, zehatz-mehatz, Elizondoko Osasun Eskualde Oinarrizkoko plantilla? Plantilla bete gabe baldin badago, noiztik daude lanpostu horiek bete gabe? Zer neurri darabilzue gogoan lanpostu horiek betetzeko?

Iruñean, 2021eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, doako laguntza juridikoaren erregelamendu berriaren eta haren konpentsazio ekonomikoko oinarri berrien inpaktu ekonomikoari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, doako laguntza juridikoaren erregelamendu berriaren eta haren konpentsazio ekonomikoko oinarri berrien inpaktu ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer aurreikuspen darabilzue doako laguntza juridikoaren erregelamendu berriaren eta haren konpentsazio ekonomikoko oinarri berrien inpaktu ekonomikoari buruz?

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Mendillorriko BHIIn nahiz Berako Toki Ona institutuan antolatutako “Herri Eskolak” izenekoei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Mendillorriko BHIIn nahiz Berako Toki Ona institutuan antolatutako “Herri Eskolak” izenekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Ikama erakundeak sare sozialetan iragarri zuen urriaren 12an “herri eskolak” antolatuko zituela Mendillorriko BHIIn nahiz Berako Toki Ona institutuan. Departamentuak horren berri izan al du? Horretarako baimenik eman al du? Baimenik eman ez badu, neurririk hartuko al du?

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, VI. Inkesta Soziolinguistikoa herritarrek euskararekiko duten jarreraz egindako galderari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, VI. Inkesta Soziolinguistikoa herritarrek euskararekiko duten jarreraz egindako galderari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

VI. Inkesta Soziolinguistikoa 27. orrialdean herritarrek euskarari buruz duten jarrera aztertzen da. Zer da, inkestaren arabera, aldeko jarrera, zer aurkakoa eta zer ez alde ez aurka egotea?

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Nafarroako Ospitalegunearen izena aldatzearen kostuari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak Nafarroako Ospitalegunearen izena aldatzearen kostuari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Ospitalegunea izenaren ordean Nafarroako Unibersitate Ospitalea izena erabil-tzeak zer kostu izanen du seinaleztapenean, erro-tulazioan, paper-gauzetan edo bestelako kostu gehigarrietan?

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, *Telleria eta gero, zer?* liburua nahitaez irakurri beharrari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak *Telleria eta gero, zer?* liburua nahitaez irakurri beharrari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Kontseilariak nola baloratzen du Lekarozko institutuko DBH 4ko ikasleek nahitaez irakurri behar izatea *Telleria eta gero, zer?* eleberria eta horren ordez beste bat irakurtzeko aukerarik ez ematea? Kontuan eduki behar da eleberriak Aroztegiko proiektua dakarrela gogora eta egilea proiektu horren aurkako ekintzailea dela, eta kontuan eduki behar da orobat testuingurua : protestak, sabotajeak, gizarte-amorrazioa, pankartak eta pintadak eremu publikoetan nahiz azpiegiturretan eta lurren okupazioa Aroztegian. Gogorarazi beharra dago eleberriak ia hitzez hitz errepikatzen duela “Aroztegia eta gero, zer?” plataformaren izena, eta sustatzaileen nahiz kargudun politikoen aurkako eraso iraingarriak jasotzen direla bertan; batzuetan haien izena bere horretan emanda, eta beste batzuetan, berriz, fikziozko izenak erabilia, baina egilea nori buruz ari den jakiteko xehetasunak jasota.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, umetokiaren lepoko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa oportunistan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, umetokiaren lepoko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa oportunistan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuak zer egin du umetokiaren lepoko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa oportunistan 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarte?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egingakoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egingakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuak zer egin du bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarte?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, koloneko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egingakoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, koloneko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egingakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuak zer egin du koloneko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarte?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean hainbat arrazoiren arabera izandako hilkortasun-tasei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean hainbat arrazoiren arabera izandako hilkortasun-tasei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean zein izan da hilkortasun-tasa honako arrazoi hauek direla medio: sepsia, pneumonia, bihotz-gutxiegitasuna, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, giltzurrun-gaixotasuna, garuneko eta odol-hodietako gaixotasuna, diabetes mellitusa, kardiopatia iskemikoa eta minbizia?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, 2005etik 2020ra bitartean Nafarroako administrazio publikoetan izandako langileei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, 2005etik 2020ra bitartean Nafarroako administrazio publikoetan izandako langileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publi-

koko eta Barneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

a) Nafarroako administrazio publikoetan 2005etik 2020ra bitartean egondako langile-kopurua, bi urte horiek barne, espresuki adierazita zer administrazioari atxikita zeuden –kasua bada, zer departamenturi–, eta lanpostua zer herritan zegoen.

b) Nafarroako Gobernuko eta haren mendeko erakunde autonomoetako langile-kopurua 2005etik 2020ra bitarte, bi urte horiek barne, departamentuz departamentu, lanpostua zer herritan zegoen adierazita.

c) Nafarroako administrazio publikoetako zenbat langilek jaso zuten euskarazko prestakuntza 2005etik 2020ra bitarte —Euskarabidean, NAPIn, euskaltegietan eta NUHEOn Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako matrikulekin—, urtez urte eta mailaz maila zehaztuta, espresuki adierazita zer administrazioari zeuden atxikita eta zer herritan dagoen.

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

COVID-19aren aurkako Nafarroako Parlamentuaren Prebentzioko Kontingentzia Plana, Legebiltzarreko Mahaiaren 2021eko urriaren 18ko erabakiaren bidez onetsia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko egoera epidemiologikoaren aurrean eta ikusirik COVID-19aren aurkako Nafarroako Parlamentuaren Prebentzioko Kontingentzia Plan indardunari Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak egindako ekarpenak, bai eta Nafarroako Parlamentuko Segurtasun eta Osasun Batzordearen iritzia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 37. artikularekin bat haxe ERABAKI DA:

1. Onestea COVID-19aren aurkako Nafarroako Parlamentuaren Prebentzioko Kontingentzia Plana, erantsita doana.

2. Jasotzat ematea Nafarroako Parlamentuko Segurtasun eta Osasun Batzordeak eginiko txostena.

3. Agindua ematea zerbitzuetako buruei behar dena presta dezaten Kontingentzia Planean bilzen diren gomendioei eta prebentzio neurriei erantzuteko.

4. Erabaki hau foru parlamentarioei, Legebiltzarreko langileei eta Nafarroako Parlamentuko Foruzaingoari igortzea.

5. Erabaki hau Segurtasun eta Osasun Batzordeari, Nafarroako Gobernuari eta horren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari jakinaraztea.

6. Agintzea erabaki hau eta Kontingentzia Plana Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

COVID-19aren aurkako Nafarroako Parlamentuaren Prebentzioko Kontingentzia Plana

Lehena.- Bilera parlamentarioak nola egin.

1. Parlamentuko organoek zilegi dute bilkura presentzialak, ez-presentzialak edo mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) egitea.

2. Parlamentuko Mahaiari dagokio, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, osoko bilkurak eta batzordeen bilkurak zer modutan egingen diren erabakitzea.

3. Mahaiak eta Eledunen Batzarrak bilkura ez-presentzialak edo mistoak egiten ahalko dituzte, hala erabakitzen badute.

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren, batzordeen eta ponentzien bilkurak

1. Osoko bilkuren aretoan eta batzordeen eta ponentzien aretoetan egingen dira, hurrenez hurren, deitutako osoko bilkuren, batzordeen eta ponentzien bilkurak, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari arabera garatuko dira.

2. Salbuespen gisa, legebiltzarkideak bideokonferentziaz bertaratzen ahalko dira, COVID-19rekin lotutako arrazoiengatik behar bezala egiaztatutako eskaera egin ondoren, Parlamentuko Mahaiari zuzenduta. Bilkura horietan, bozketa publikoa egingen da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikulua ezartzen duenari jarraituz.

Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona parte hartzea, dela bideokonferentziaz dela segimendua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema teknikoen bidez, eten egingen da bilkura, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fede-emailean adierazten baimendu egiten duela bilkurak jarrai dezan.

3. Salbuespen gisa, kontseilariak eta bilkura parlamentarioetara beraiekin etortzen direnak bideokonferentziaz bertaratzen ahalko dira, COVID-19rekin lotutako arrazoiengatik behar bezala egiaztatutako eskaera egin ondoren, Parlamentuko Mahaiari zuzenduta.

4. Mahaiak ebatziko ditu 2. eta 3. puntuetan aipatzen diren bertaratze telematikorako eskaerak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren.

Hirugarrena.- Maskararen erabilera.

1. Nafarroako Parlamentuko gune itxietako saio eta parlamentu-ekitaldietan egiten diren hitzaldi guztietan maskara nahitaez erabili behar dela ezartzen da, pertsonen arteko segurtasun-distantzia, 1,5 metrokoa, betetzen ez denean.

2. Hala ere, baimena ematen da Osoko Bilkuren aretoko mintzatokitik egiten diren hitzaldiak maskararik gabe egiteko.

Laugarrena.- Parlamentuz kanpoko jarduerak.

1. Mahaiak erabakitzen dituen parlamentuz kanpoko jarduerari ekinen zaie berriz ere. Nolanahi ere, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen higie- eta segurtasun-neurriak betetzen direla bermatu beharko da.

2. Osoko Bilkuretara gonbidaturiko publikoari buruz honako hau aintzat hartu beharko da:

– Jendea bilkura-aretorra joan ahal izateko gonbidatu-txartelak banatuko dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2019ko uztailaren 29ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz.

– Pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorde beharko da, ahal den neurrian.

– Maskara erabili beharko da nahitaez.

Bosgarrena.- Eraikinerako eta kafetegirako sarbidea.

Erakundeaz kanpoko langileek aplikatzekoak diren osasun-arauak bete beharko dituzte Parlamentuaren egoitzara sartzeko: eskuak aldiro garbitu behar dituzte, eta maskara nahitaez erabili beharko dute jendearentzat zabalik dauden edo jendeari arreta emateko barne-espazioetan.

Osoko bilkura egiten den egunetan eta, beraz, kafetegi-zerbitzua dagoenean, Parlamentuko langileek emandako jarraibideak bete beharko dira. Gelak behar bezala aireztatu beharko dira, eta airea berritu; hortaz, gomendagarria da aireztapen gurutzatua (parez parez edo, gutxienez ere, gelaren alde ezberdinetan dauden ateak edota leihoak irekitzea) eta leihoak ahal den denbora guztian irekitzea (esaterako, ardatz aldagarriko posizioan).

Maskara erabiliko da jateko edo edateko unean izan ezik.

Seigarrena.- Hedabideak.

1. Baimena ematen zaie prentsako, irratiko, telebistako eta behar bezala egiaztatutako gainerrako komunikabideetako kazetariei, prentsaurrekoetan, parlamentu-bilkuretan eta gainerrako ekitaldi instituzional edo jarduera parlamentarioetan parte hartzeko.

2. Prentsaurrekoak presentzialki edo/eta bideokonferentzia bidez egiten dira.

Hedabideak fisikoki bertaratuta eginiko prentsaurrekoak astelehen eta ostegunetan egiten dira, Legebiltzarreko atalondoan. Beharrezkoak izanen dira alde aurreko akreditazioa eta bertaratze-konfirmazioa, gunean segurtasun-neurriak betetzeko egokitzapenak egin eta betiere bermatze aldera pertsonen artean metro eta erdiko gutxieneko distantzia dagoela. Horretarako, hizlariaren mintzatokiaren aurrean jarriko dira ekitaldirako egiaztatu diren pertsonentzako besaulkiak, distantzia horren arabera.

Bilkura presentzialetan mikrofono-oin bat jarriko da atarian, komunikabideek galderak egin ditzaten, eta Legebiltzarreko zerbitzuek babesgarria aldatuko diote kazetari bakoitzak esku hartu ondoren.

Halaber, mahai bat prestatuko da, non berrie-maileek gel hidroalkoholikoa izanen duten beren grabazio-tresnak eta eskuak desinfektatzeko, prentsaurrekoa baino lehen eta prentsaurrekoa amaitu ondoren.

3. Osoko bilkuretan edo batzordeen bilkuretan, kazetariak hemizikloko eta batzorde geletako prentsa-kabinetan eta prentsarako guneetan jarri beharko dira, eta Legebiltzarreko langileek emandako jarraibideak bete beharko dituzte, gutxienez metro eta erdiko tarteari eutsiz. Erreportari grafiko- en kasuan, aretoetara sartzeko ahalko dira, gomendatutako gutxieneko distantzia zainduz. Beren lana egiteko behar duten gutxieneko denboran egoten ahalko dira bertan.

4. Agerraldira bertaratzen diren hedabideek Nafarroako Parlamentuari bermatu beharko diote egiaztatzen dituzten langileak ez daudela COVID-19ak kutsatuta, eta kutsatuta egonez gero uko eginen diote kasuko langilea ekitaldira bidaltzeari, eta haren ordez beste korrespontsal bat bidaliko dute. Bestalde, osasun-agintaritzaren gomendioak —bereziki eskuen garbiketa, maskara erabiltzea eta segurtasun-distantzia— eta, hala badagokio, Legebiltzarreko zerbitzuek egiten dituztenak bete beharko dituzte.

Zazpigarrena.- Babes-neurri orokorrak.

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak proposatuta eta Legebiltzarreko Segurtasun eta Osasun Batzordeari entzun ondoren Mahaiak erabakitzen dituen babes-neurri orokorrak aplikatuko dira COVID-19arekin kutsatzeko arriskuari aurre egiteko.

2. Arau hauetan ezarritako prebentzio- eta higiene-neurriak hartuko dira kontuan:

- Martxoaren 29ko 2/2021 Legea, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio neurri urgenteei buruzkoa.

- 35/2021 Foru Agindua, irailaren 29koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez indarrik gabe uzten baitira COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoa dela-eta hartu eta indarrean diren berariazko neurrien ondoriozko murrizketak.

3. Edonola ere, pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantendu beharko da —metro eta erdi gutxienez— edo, halakorik gorde ezin bada, maskara erabiliko da.

Maskaren erabilerari dagokionez, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio neurri urgenteei buruzko martxoaren 29ko 2/2021 Legea, ekainaren 24ko Errege Lege-dekretuaren bidez aldatu zena, izanen da aplikatu beharrekoa.

4. Talde parlamentarioen bulegoetan segurtasun neurriak eta pertsonen arteko gutxieneko metro eta erdiko distantzia mantendu beharko dira, eta halakorik ezean, maskara erabiliko da. Talde parlamentarioen barneko bilerak egiteko beste areto batzuk erabiltzen ahalko dira, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2020ko ekainaren 1ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauen arabera.

5. Instalazioak ahal den gehiena egurastuko dira, eta, nolana ere, gutxienez 3 aldiz egunean, eta behar den denboran, barruko lokal eta espazioetan airea behar bezala berritu ahal izateko.

Astero CO₂ neurketak eginen dira gela desberdinetako airearen kalitatea neurtzeko. Emaitza 800 ppm-tik gorakoa bada, neurriak hartuko dira. Gela gehiago egurastea edo edukiera murriztea izan ahalko dira neurriak.

Zortzigarrena.- Prebentzio-neurriak lan presentziala egiteko.

1. Langile guztien lan presentzian errespetatuko dira une bakoitzean aplikatu beharreko

prebentzio-neurriak, lan-ordutegiak eta osasun-agintaritzak pertsonen arteko banantze-distantziak direla-eta ezarritako eskakizunak beteko dituzten espazioak, kutsatzeak saihesteko; halaber, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak lanpostuen arriskuak ebaluatzeko horretarako prestatutako fitxetan ezarritako gainerako prebentzio-neurri zuzentzaileak beteko dira.

2. Halere, COVID-19agatik kutsadura-arriskuaren ondoriozko egoerak dirauen bitartean, Legebiltzarreko langileek zilegi izanen dute beren eginkizunak ordutegi-malgutasunez betetzea, telelanen nahiz presentzialki, Plan honek xedatzen duenari jarraituz.

3. Legebiltzarreko langileak behartuta egonen dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsitako Lan-jarduera presentzialera itzultzeko protokoloan jasotako neurriak betetzera.

Bederatzigarrena.- Ordutegi-malgutasuna, lan-txandean egokitzea eta ezinbesteko eginbeharragatik baimena.

1. Ezertan galarazi gabe lanaldi-araubide arruntaren betetzea, 14 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo bigarren gradurainoko odol-nahiz ezkontza-ahaidetasuneko mendeko edo desgaitasuna duten edadetuak zaintzeko kasuan, etxebizitzan berarekin bizi direnak eta ikastetxe zein zahar-etxeen ixteak ukitu dituenak, Legebiltzarreko langileek zilegi izanen dute bizitza pertsonala eta lanekoa bateragarri egiteko beharrezkoa den ordutegi-malgutasunaz jardutea, bai eta lan-txandean egokitzea erabiltzea ere, lanpostuak horretarako modua emanaz gero, aurretiaz Idazkaritza Nagusiari eskaera eginda eta haren baimena lortuta, atxikita daukan zerbitzuruak txostena egin ondoren.

2. Aipaturiko kasuetan, langileek aukeratzen ahalko dute beren lanaldia 07:30etik 20:30erako denbora-tartearen barrenean betetzea, astelehenetik ostiralera.

3. Kasu horietan, ohiko zerbitzua telelanaren, ordutegi-malgutasunaren edo lan-txandaren egokitzearen bidez eman ezin denean, langileek ezinbesteko betebeharrarako baimena hartzen ahalko dute, aldeztu aurretik eskatuta eta Idazkaritza Nagusiak baimena emanda, atxikipen-zerbitzuko Burutzaren txostenarekin.

Hamargarrena.- COVID-19arekiko sentiberak diren langileei aplikatu beharreko babes-neurriak.

Kaltebera gisa kalifikatutako langileei gainontzeko langileei aplikatutako prebentzio-neurri orokor berberak aplikatuko zaizkie: maskara erabili

beharra, eskuak aldiro garbitzea eta pertsonen arteko segurtasun-tartea gordetzea.

Hamaikagarrena.- Isolamendu-egoeran dauden langileei aplikatzekoak zaizkien neurriak.

1. Nahitaezko konfinamendu baten edo osasun-agintaritzak aurreikusitako kasuren baten ondorioz isolamendu-egoeran iraun behar duen langileari honako egoeretako bat izanen zaio aplikagarri, lehentasun-hurrenkeran:

a) Telelan-araubideko etxealdia.

b) Nahitaezko etxealdia, ezinbesteko eginbehar bat betetzeko baimenaren babespean.

Horrek guztiak ez du ezertan eragotziko Osasun Zerbitzu Publikoak langilearen lanerako ezintasun iragankorra deklaratzeko. Kasu horretan Parlamentuko Zerbitzu Orokorretara igorriko zaie.

2. Isolamendu-egoera bukatu, langilea bere lanpostura itzuliko da.

Hamabigarrena.- Erregistroa eta jendearentzako arreta.

Erregistroko eta jendearentzako arretako zerbitzu presentzialak berrezarriko dira, zerbitzu horiek telematikoki eta telefonoz ematen jarraitzea kendu gabe.

Hamahirugarrena.- COVID-19ko positiboan edo isolamenduaren kasuak.

Plan honek indarrean dirauen bitartean Parlamentuko langileen artean ager litezkeen positiboak edo sendagilearen aginduz isolamenduan egon beharrekoen kasuak telefonoz edo posta elektronikoz honako helbide hauetako batean jakinarazi behar da:

- Zerbitzu Orokorretako burua: 948 209 222 telefonoa. Edo helbide honetara bidalitako posta elektronikoa pcuello@parlamentodenavarra.es:

- Idazkari nagusia: 948 209 224 telefonoa. Edo helbide honetara bidalitako posta elektronikoa asdomenech@parlamentodenavarra.es:

Egoera berean dauden foru parlamentarietako berehala emanen diote horren berri lehendakaria-

ri, posta elektronikoki bidez (presidencia@parlamentodenavarra.es), jakin dezan eta, kasua bada, osasun agintariek gomendatzen dituzten neurriak har daitezke. Horrek guztiak ez du ezertan eragotziko Osasun Zerbitzu Publikoak lanerako ezintasun iragankorra deklaratzeko. Kasu horretan Parlamentuko Zerbitzu Orokorretara igorriko da.

Hamalagarrena.- Parlamentuaren Liburutegi eta Artxiboko sarrera- eta kontsulta-araubidea.

1. Artxiboko eta liburutegiko funtsak irakurketagelaren presentzialki kontsultatzeko, Parlamentuaren egoitzan unean-unean indarrean dauden baldintzak bete beharko dira distantziari eta maskarak eta gel hidroalkoholikoa erabiltzeari buruzkoak. Zerbitzuko langileek eskatuko diete erabiltzaileei baldintza horiek betetzeko, eta zerbitzua bera izanen da kontsulta egiteko postu zehatza adieraziko dutenak.

2. Kanpoko erabiltzaileentzako kontsulta presentziala alde aurretik eskatuta egingen da.

3. Une bakoitzean zehazten diren Zerbitzuko funtzionarioek beste inork ezin izanen du egin Artxiboaren eta Liburutegiaren funtsen erreproduzio digitala.

Erreproduzio digitalak egiterakoan, horiek egiteko arduradunak garbituta eduki beharko ditu eskuak eta eskuztaturik suertatzen diren funtzio anitzeko inprimagailuaren atalak. Erreproduzioak egin ondoren, gauza bera egin beharko du.

Hamabosgarrena.- Indarra hartzea.

1. Plan honek onesten den egunean hartuko du indarra, eta indarrean segituko du Mahaiak erabakitzen duen arte.

2. Planean jasotzen diren langileria-arloko neurriak ez dira kontsolidagarriak; horrenbestez, ez dira eskuratutako eskubidetzat joko sor litezkeen egoerei dagokienez.

Hamaseigarrena.- Indargabetzea.

Indarrak gabe gelditzen dira Kontingentzia Plan honetan xedatutakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak, 2021eko urriaren 8ko idazkiaren bidez, Parlamentuari eskatu dio Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako kide berri bat proposa dezala, Nafarroako Parlamentuko ordezkari gisa, Esteban Morrás jauna ordeztuko duena.

Ikusita Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea, zeinaren 9.3 a) artikuluan xedatzen baita Kontseilu horretako bost kide Nafarroako Parlamentuak hautatuko dituela gehiengo osoz, Eledunen Batzarrarekin adosturik eta Erregelamenduaren 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzeko arauak onestea. Hona arauen testua:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako kide bat hautatuko du Nafarroako Parlamentuko ordezkari gisa, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

2. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak hautagai bakarra aurkezten ahalko du, aipatu foru legean ezarritako baldintzak bete beharko dituztenak.

3. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari hautagaiak aurkezteko, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaien oniritzia. Proposatutako pertsonak aipatu foru legeko 14. artikuluan ezarritako batezbestekotasunaren batean erortzen ote diren zehazte aldera, proposamen-idazkiarekin batera hautagaien akreditazio edo adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko baita ez direla batezbestekotasunean erortzen.

4. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako kide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2021eko urriaren 28ko 17:30ean bukatuko da.

5. Epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaitzek betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako kide baten hautapena Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa.

8. Mahaiak botoak zenbatu eta boto gehien lortu dituen hautagaitza aldarrikatuko du. Hautagaitzak Legebiltzarreko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa lortu behar du gutxienez.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaitzen arteko beste bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaitzen arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte.

10. Lehenbiziko bozketan postua betetzen ez bada 8. arauan zehaztutako baldintzak ez bete-tzeagatik, bozketak errepikatuko dira. Lehendakaritzak botazioak eten ahalko ditu, arrazoizko epe batean, zirkunstanziek horrela jokatzea gomendatzen badute. Segidan hiru botazio suertatzen badira hautagaia hautatu gabe, bukatutzat emanen da hautatze-prozesua, eta prozesu berri bati emanen zaio hasiera.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias